

2025ko uztailaren 7ko **3124/2025 Alkatetza Dekretuaren laburpena**: Basauriko Udalaren Kultura-politika eta Euskara Arloak antolatutako **San Fausto 2025 kartel lehiaketa, senior eta txiki eta gazte kategorietan**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3 eta 20.8 artikuluetan xedatutakoarekin bat eginez (testua, osorik, Diru-Laguntzen datu-base nazionalen: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>), honako hauek zehaztu dira:

Lehenengoa.- Onuradunak

Epaimahaiak aukeratutako lanen egileak. Lanak aukeratuko dira beren kalitate artistikoaren arabera.

Bigarrena.- Diru-laguntzaren xedea

Lehiaketara aurkeztutako lanen arteko onenak saritzea: Epaimahaiak San Fausto Jaiak 2025 iragartzeko aukeratutako kartela (*senior eta txiki eta gazte* kategoriak)

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

2024ko abuztuaren 6ko 150. BAO on argitaratutako udal dirulaguntzak emateko ordenantzak onartu ditu oinarri arautzaileak.

Hirugarrena. Sariaren zenbatekoa.

Senior kategoria:

Epaimahaiak jaiak iragartzeko hautatzen duen kartelaren egileari 1.500,00 euroko saria emango zaio, eta 300,00 euroko akzesita udalerriko diseinurik onenari.

Txiki eta gazte kategoriak:

Txiki eta gazte kategorian, sari nagusi bakarra banatuko da kategoria bakoitzean

- Txikiak: 6 eta 9 urte bitarteko Basauriko haurrak
Social Antzokiko haur-ikuskizunetarako 4 sarrera, eta zinemarako beste 4 sarrera banatuko dira.
50 euroko txartela, Basauriko dendetan gastatzeko.
- Gazteak: 10 eta 13 urte bitarteko Basauriko haurrak
Basauri Kirolakeko igerilekuan ordubeteko egonaldia, eta gero askaria kafetegian, gehienez ere 15 umerentzat. Eta Basauriko Indoor Multiabentura Parkerako 4 sarrera, bi orduz bertan jarduteko.
100 euroko txartela, Basauriko dendetan gastatzeko.

Laugarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Senior kategoria:

Lanak Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkeztuko dira, lanegunetan, 08:00etatik 14:00etara, 2025eko uztailaren 5tik irailaren 5era bitartean.

Txiki eta gazte kategoriak:

Lanak Herriarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztuko dira, lanegunetan, 08:00etatik 14:00etara bitartean. Aukeran, telematikoki aurkeztu ahalko dira, www.basauri.eus udal webgunean. Epea uztailaren 5etik irailaren 5era.

